



## ALKATE EBAZPENA

### MIKEL UHARTE MARTIJA JAUNAK, LARRAUNGO ALKATEAK, GAURKO EGUNAREKIN HONAKO EBAZPENA EMAN DU:

Gaia: Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzea.

#### Aurrekariak:

Larraungo Udalak 2023ko irailaren 21ean ospatutako batzarrean onartu zituen Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko etxebizitzak alokatzeko baldintzak.

2023ko urriaren 31n ospatutako Batzarrean, Larraungo Udalak, besteak beste, onartu zuen eskaerak aurkezteko epea irekitzea Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzeko; epea azaroaren 23an bukatu zen. Zortzi eskaera aurkeztu ziren epearen barnean.

2023ko azaroaren 28an Hirigintza Batzordea elkartu zen, eta etxebizitzak esleitzeko onartuen behin behineko zerrenda eta puntuazio ordenari buruzko irizpena eman zuen.

2023/77 Alkate Ebazpenaren bidez behineko zerrenda eta puntuazioa onartu zituen Udalak. Alegaziorik aurkeztu ez denez, behin behineko puntuazioa eta zerrenda behin betiko bihurtu dira.

2023ko abenduaren 12an Fatima Ennadafy andreak idatzia aurkeztu zuen Larraungo udal erregistroan uko eginez berari egokitutako etxebizitzari; Ennadafy andrea puntuazio ordenean bigarren dago, baina uko egin duenez, berari esleitu behar zizaien etxebizitza, hirugarren postuan dagoen pertsonari esleitu beharko zaio.

Aintzat hartuta Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko etxebizitzak esleitzeko udal baldintzak,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz,





**ERABAKI DUT:**

**1. Behin betiko zerrenda onartzea eta puntuazio ordena jartzea, Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko Alokairu Sozialeko etxebizitzak esleitzeko:**

1. Sharon Natalia Castro Martínez: **43 puntu.**
2. Ahmed Slimani: **31 puntu.**
3. Ander Murga Alkorta: **31 puntu.**
4. Yoana Zubillaga Perurena: **27 puntu.**
5. Itsaso Aldai Landa: **22 puntu.**
6. Eider Etxebeste Agirre: **17 puntu.**

**2. Esleitzea jarraian azaldutako pertsonen Azpirotz-Lezaeta eta Etxarriko Alokairu Sozialeko etxebizitzak, betiere, Udalak onartu zituen baldintzenpean:**

- Sharon Natalia Castro Martínez: Etxarriko etxebizitza.
- Ahmed Slimani: Azpirotz-Lezaetako etxebizitza.

Ebazpen honen kontra, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Mugiron, Larraunen, sinadura elektronikoaren datan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Ana Alduntzin Navarro

